

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

Hirueledun ibilbidea eskola batean: partaideen iritziak aztertzen

Egilea: Aitziber Ureta Valle

Zuzendaria: Julian Maia Larretxea

Leioan, 2016ko maiatzaren 31n

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Marko teorikoa	4
1.1 Mundu mailako egoera: Globalizazioa eta <i>lingua franca</i>	4
1.2 Ingeles maila Espainiar estatuan	5
1.3 Zer da CLIL/HEBI?	6
1.3.1 CLIL eta murgiltze programak	7
1.4 CLIL/HEBIri buruzko jarrera EAEn.....	8
1.4.1 Administrazioa: Curriculuma EAEn.....	8
1.4.2 Gizarteko hezkuntza eragileak	10
2. Ikerketa enpirikoa: ikastetxe baten azterketa	12
2.1 Metodologia	12
2.1.1 Galdetegiak	13
2.1.2 Galdetegiak sortzeko irizpideak	14
2.2 Galdetegien emaitzak	15
2.2.1 Ikasleen iritziak.....	15
2.2.2 Gurasoen iritziak.....	19
2.2.3 Irakasleen iritziak.....	20
2.2.4 Zuzendaritza taldearen iritziak.....	22
2.3 Galdetegien erantzunetatik ateratako ondorioak	23
3. Lan guztiaren ondorioak	24
4. Bibliografia.....	27
Eranskinak.....	28

Hirueledun ibilbidea eskola batean: partaideen iritziak aztertzen

Aitziber Ureta Valle

UPV/EHU

Azken hamarkadetan gertatutako aldaketa politiko, ekonomiko eta sozialen eraginez, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna garatzea ezinbestekoa bihurtu da gure gizartean. Eskolek gero eta garrantzia handiagoa ematen diote hizkuntzen irakaskuntzari eta horren ondorioz, hirueledun proiektuak jartzen dituzte martxan HTBen bidez edota CLIL metodologian oinarrituta. Hori guztia kontuan hartuz, lan honetan ikerketa bat garatu da eskola publiko baten hizkuntza proiektuaren eraginkortasuna aztertzeko. Horretarako, ikasleen, irakasleen eta gurasoen iritziak eta esperientziak galdetegi batzuen bitartez batu dira: alde batetik, haien egoera erreala (proiektuari dagokionez) ezagutzeko asmoz, eta bestetik, eskolak prestatu duen hirueledun proiektuaren gakoak eta lorpenak zeintzuk diren jakiteko.

Gako-hitzak: *CLIL/HEBI, hizkuntzak, hirueledun proiektua, Lehen Hezkuntza, ikerketa*

Debido a los cambios políticos, económicos y sociales de las últimas décadas, el desarrollo de la competencia en comunicación lingüística se ha vuelto indispensable en nuestra sociedad. Los colegios le dan cada vez más importancia a la enseñanza de los idiomas, y en consecuencia, se están poniendo en marcha proyectos de educación trilingüe mediante el TIL o basándose en la metodología CLIL/AICLE. Teniendo en cuenta todo eso, en este trabajo se ha desarrollado una investigación para analizar el proyecto lingüístico de un colegio público. Para ello, a través de unos cuestionarios, se han recogido las opiniones y experiencias de los alumnos, profesores y padres: por un lado para conocer su situación real (respecto al proyecto), y por otro lado, para conocer las claves y logros del proyecto de trilingüe que ha preparado el colegio.

Palabras clave: *CLIL/AICLE, idiomas, proyecto trilingüe, Educación Primaria, investigación*

Due to political, economical and social changes during the past decades, the development of linguistic communicative competence has become a necessity in our society. Increasingly, schools are focusing on teaching languages, therefore TIL trilingual teaching projects are becoming even more important as well as projects based on CLIL methodology. Having in mind this situation, this research has been carried out in order to analyze the linguistic project of a state school. Through several surveys, students, teachers and families opinions and experiences have been collected with two aims. On the one hand, the surveys would let know the real situation about the project taking place at school and, on the other hand, the results will show the opinion about the key elements and achievements of the school program.

Key-words: *CLIL, languages, trilingual project, Primary Education, research*

Sarrera

Globalizazioa dela eta, azken urteotan gizarteak aldaketa ugari izan ditu; horien artean komunikazioari dagozkion aldaketak daude, hala nola, hizkuntzek hartu duten indarra. Urteak pasa ahala, hizkuntzak ezinbesteko ardatz bihurtu dira komunikabideen gizarte honetan bizirauteko, eta horregatik ageri da joera hizkuntzak ikasten, gero eta lehenago hasteko.

Lan honetan, egun eskoletan erabiltzen den metodologia berritzaile bati buruz hitz egiten da, hizkuntzekin zerikusia duena. Helburua, era sakon batean hezkuntza sistemak egiten dituen aldaketak hobeto ezagutzea da eta horretarako, alde batetik, aipatutako metodologiari buruzko oinarritzko teoria eta informazioa bilatu da eta bestetik, hizkuntza proiektuei buruzko errealitatea ezagutzeko asmoz, ikerketa bat egin da ikastetxe batean.

Ikerketa horretan, ikasleen eta irakasleen egunerokotasuna aztertzeke galdetegi batzuk sortu dira eta horien bitartez, hizkuntza proiektuei buruzko informazio ugari batu da. Horrez gain, ikasleen gurasoei ere galdetegi batzuk egin zaizkie, hizkuntzei dagokienez haien eguneroko bizitzan zein nolako garrantzia ematen dieten jakiteko eta haien seme-alaben eleaniztasun mailari buruzko datuak eskuratzeko.

Hori guztia egin eta gero, ondorio batzuk atera dira, zeinetan eleaniztasunaren inpaktua eskoletan nolakoa izan den adierazten den eta ikasleen, irakasleen eta gurasoen iritzia azaltzen den.

1. Marko teorikoa

1.1 Mundu mailako egoera: Globalizazioa eta *lingua franca*

Azken hamarkadetan, globalizazioa dela eta, gizarteak aldaketa soziokultural, politiko, etiko eta ekonomiko ugari jasan ditu (Brunner, 2000). Eraldaketa honen ondorioz, gizartea gero eta pluralagoa eta joriagoa da eta aniztasun horrek hizkuntza hartzen du barne.

Gaur egun, kultura eta jatorri desberdineko pertsonen arteko komunikazioa inoiz baino beharrezkoagoa da; izan ere, pertsonak dira kultura mantentzeaz, aldatzeaz eta transmititzeaz arduratzen direnak (Rodrigo, 2000) eta beraz, etengabeko kontaktu hori eduki ahal izateko, norberaren ama-hizkuntzaz gainera, garrantzitsua da beste hizkuntzaren batean ere komunikazio gaitasuna lortzea.

Esan bezala, gero eta harreman gehiago ditugu beste herrialdeetako pertsonekin eta harreman hauek profesionalak zein pertsonalak izan daitezke. Hori dela eta, herrialde desberdinetako pertsonen arteko komunikazioa ahalbidetzen duten zubiak behar dira, eta zubi horiek hizkuntzak izaten dira neurri handi batean. Horrela, beren jatorrizko hizkuntzetan mintzatuz elkarri ulertu ezin izango lioketen hiztunek adosten dute hizkuntza bat erabiliko dutela bien arteko komunikazioa bermatzeko.

Funtzio hori betetzen duen hizkuntzari *lingua franca* deritzogu. Gaur egun, helburu hori maila handiengan betetzen duen hizkuntza, dudarik gabe, ingelesa da. Ingelesa *lingua franca* nagusia izatearen ondorioz, gaur egungo ingeles hiztun gehienek ingelesa bigarren hizkuntzatzat edo atzerriko hizkuntzatzat dute (Crystal, 2007). Ildo horretan, aipatzekoa da, hizkuntza batek garrantzia izatea eragiten duena ez dela hizkuntza bera hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, haren hiztunek eta haien botereak baizik, eta testuinguru horretan, faktore politikoek, ekonomikoek, hedabideenak eta teknologiarenak botere hori baldintzatzen dute (Crystal, 2007).

1.2 Ingeles maila Espainiar estatuan

Azken urteotan ingelesak gero eta garrantzia handiagoa hartu du bai mundu mailan baita Europa mailan ere. Lehen esan bezala, globalizazioa dela eta, ingelesa *lingua franca* moduan zabaldu egin da eta gero eta handiagoa da ingelesa ikasteen interesaturik dagoen jende kopurua (Posteguillo, 2002).

Horrekin batera, Europako Kontseiluak, hizkuntzei dagokienez, hainbat helburu dituela aipatzekoa da. Haien artean hauek aipa daitezke: eleaniztasuna zabaltzea, herritar guztiek hainbat hizkuntzatan komunikatzeko gaitasuna garatzeko eskubidea dutelako; hizkuntza aniztasuna sustatzea, Europan hizkuntza desberdinak existitzen direlako eta guztiak komunikatzeko era baliagarriak direlako; edota, elkarren arteko komunikazioa indartzea, beste hizkuntza bat ikastea aukera ezinbestekoa delako kultura desberdinen arteko komunikazioa sustatzeko (Council of Europa, d.g.¹).

Hori guztia kontuan hartuz, urteak pasa ahala ingeles maila hobetu egin dela eta gaur egun Europa nahiko konpetentea dela esaten da ingelesa jakiteari dagokionez. Hala eta guztiz ere, Europan badira ingeles-hizkuntza maila baxua duten herrialdeak ere, eta honen adibide bat Espainiar estatua da (EF Education First, 2011), 1. koadroan ageri den bezala.

Sailkapena	Herrialdea	EF EPIren emaitzak	Maila
1	Norvegia	69.09	Oso altua
2	Holanda	67.93	Oso altua
3	Dinamarka	66.58	Oso altua
4	Suedia	66.25	Oso altua
5	Finlandia	61.25	Oso altua
6	Austria	58.58	Altua
7	Belgika	57.23	Altua
8	Alemania	56.64	Altua
[...]	[...]	[...]	[...]
24	Espainia	49.01	Baxua
32	Errusia	45.79	Baxua
43	Turkia	37.66	Oso baxua

¹ URL honetan: http://www.coe.int/t/dg4/linguistic/Division_EN.asp

1. koadroa: *Ingeles jakintza maila, Europako hainbat herrialdetan (EF Education First, 2011).*

Hala ere, Espainiako hezkuntza sisteman oso goiz hasten da ingeleseko irakasgaia lantzen. Haur Hezkuntzan, atzerriko hizkuntza jarduera praktikoen bitartez jorratzen hasten da eta Lehen Hezkuntzan ikaskuntza prozesu sakonago batean murgiltzen dira ikasleak. Gainera, azken urteotan hirueledun sistemak agertu dira eskola askotan eta curriculumean atzerriko hizkuntzan jorratzeko helburu eta eduki ugari aipatzen dira. Baina nahiz eta ikaskuntza goiztiarra sustatzen den, emaitzak ez dira espero bezain onak eta ikasleek ez dituzte eduki eta helburu guztiak betetzen (EF Education First, 2011).

Hau guztia kontuan harturik, hezkuntza sisteman aldaketak egitea beharrezkoa izango litzateke; eta horretarako, metodologia berriei, eta baliabide eta irakasleen prestaketa sakonari garrantzi handiagoa eman beharko litzateke. Irakasleok ezagutza eta oinarri on batzuk eskuratuz gero, errazagoa izango litzatekeelako ikasleen motibazioa eta arrakasta lortzea, bai atzerriko hizkuntzan baita bestelako irakasgaietan ere.

1.3 Zer da CLIL/HEBI?

CLIL ingelesetik datorren terminoa da, eta ondoko hitz hauekin eginiko akronimoa da: *Content and Language Integrated Learning*. 1994. urtean martxan jarri zen Europar Batzordearen bultzadarekin eta edukien eta hizkuntzen ikaskuntza bateratuari egiten dio erreferentzia (Attard, S; Walter, L; Theodorou, M eta Chrysanthou, K., 2014). Kontzeptu horren baliokidea gaztelaniaz AICLE da (*Aprendizaje Integrado de Contenidos y Lenguas Extranjeras*), eta euskaraz, berriz, HEBI dei dakioko (Hizkuntzak eta Edukiak Batera Ikastea).

“Usar las lenguas extranjeras para aprender y aprender a usar las lenguas extranjeras” testuan esaten den moduan, metodologia berritzaile honen bitartez, eskolen helburua, klasean edozein irakasgairen edukiak atzerriko

hizkuntza batean jorratzea da. Era honetan, ikasleak kurtsoko helburuak eta edukiak garatzen joango dira, beste hizkuntza batean murgiltzen diren bitartean (Navés & Muñoz, 2000).

Prozesu hau aurrera eramateko, atzerriko hizkuntzan landuko diren irakasgai bakoitzeko saio batzuk astero ematea beharrezkoa da eta, bestalde, zenbat eta ordu gehiago sartu hizkuntza gehigarri horretan, orduan eta garapen nabariagoa ikusiko delako ustea dago, esposizioaren kantitatea faktore garrantzitsua izan ohi delako. Eragiten duten faktoreen artean, ordea, kontuan izan behar dugu ikasleen adina ere: gazteagoak diren ikasleekin astean behin jarduera sinpleak eginez eta ikasle helduagoekin irakasgai gehiagotan *CLIL*en murgilduz (Navés & Muñoz, 2000).

*CLIL*ek hiru ezaugarri nagusi dituela esan dezakegu (Attard, S. et al. 2014):

- Bigarren hizkuntza baten ikaskuntza, beste gaiekin bateratuta dago (adb. zientzia, historia edo geografiarekin). Hala, ikasleek hizkuntza bat ikasten dute, bestelako eskola-eduki batzuk lantzen dituzten bitartean.

- *CLIL*ek hainbat testuinguru desberdinetan dauka jatorria eta edozein hizkuntza, adin edo ikaskuntza mailarekin erlaziona daiteke (Haur Hezkuntzatik, formakuntza profesionalera arte). Zentzu honetan, *CLIL*ek hiritar guztien prestakuntza programei erantzuten die, betiere eleaniztasuna indartzeko eta europarren arteko integrazioa, ulermena eta mugikortasuna sustatzeko ere.

- *CLIL*en bitartez gaitasun sozialak, kulturalak, kognitiboak, hizkuntzakoak eta akademikoak garatzen dira, beste hizkuntza bat ikasi eta edukiak jorratzen diren bitartean.

1.3.1 *CLIL* eta murgiltze programak

Murgiltze programa gehiengo hizkuntza bateko ikasle bat eskolan gutxiengo hizkuntza batean sartzenean gertatzen da. Adibidez, Euskadiko Autonomia Erkidegoan gaztelania ama-hizkuntza moduan daukan ikasle bat eskolan euskarako D eredu batean sartzenean murgiltzea gertatzen da.

Kasu horretan, umearen lehen hizkuntza ez dago arriskuan, ikasketa-testuingurua gehigarria baita (Baker, 2011: 209-210).

Egoera kontrakoa izango balitz, ordea, non gutxiengo hizkuntza bat (euskara) lehen hizkuntza bezala (1H) duen ume batek, gehiengo hizkuntza bateko eskola batean sartzen den, ez da murgiltzea deitzen, azpiratzea baizik (ingelesez, submersion) (Baker, 2011: 209-210).

Hau guztia kontuan harturik, *CLIL*ak proposatzen duenak eta murgiltzeak zerikusia badaukatela esan genezake. Hala eta guztiz ere, badira murgiltzea *CLIL*aren atal bat baino ez dela esaten duten autoreak: biek hizkuntza bat gehitzeari eta lantzeari egiten diote erreferentzia, baina *CLIL*en bitartez, ez da soilik hizkuntza baten garapena bilatzen, baizik eta curriculumeko ikasgai bateko edukiak lantzea eta ulertzea ere (Marsh, 2002). Gainera, murgiltzean gutxiengo hizkuntza baten ikasketa gertatzen da, eta *CLIL*en kasuan, askotan, ingelesa lantzen da, atzerriko eta gehiengo hizkuntza bat izanik.

1.4 *CLIL/HEBI*ri buruzko jarrera EAEn

EAEn *CLIL*ek orain arte izan duen harrera eta segimendua analizatzeko, gai horretan zerikusi zuzena duten bi eragile mota aipatuko ditugu ondoko lerroetan: alde batetik, Administrazioak gaiaren inguruan erakutsi duen jarrera azalduko dugu (1.4.1 atala), eta bestetik, gobernu-erantzunkizun zuzenik gabeko elkarte esanguratsu batzuen jarduera erakutsiko dugu. Horretarako, atal honetan (1.4.2 atala), Kristau Eskola eta Ikastolen Elkartearen jarrera zein den azalduko da eta hizkuntza proiektu eleaniztunekin daukaten harremana edo konpromisoa zehaztuko da.

1.4.1 Administrazioa: Curriculumuma EAEn

Euskal Herriari dagokionez, eta hezkuntza arloari erreferentzia eginez, aipatzekoa da curriculumuma elebakarra izatetik (Francoren diktaturaren garaian) eleaniztuna izatera igarotzen ari dela. Bilakaera honek gizartearen garapenarekin bat egin du, egungo gizartearen eskakizunei aurre egiteko, elebiduna izatea ez delako nahikoa. Beraz, eskolako erronkarik

nagusienetarikoa bi hizkuntza ofizialak eta gainera gutxienez atzerriko hizkuntza bat menperatzeko gai diren norbanakoak prestatzea bilakatu da (Eusko Jaurlaritza, 2016: 12-13).

Horrekin batera, eleaniztasunak arazo eta erronka berriak gaineratu dizkio irakaskuntza sistemari, izan ere, eskola curriculumean hizkuntza bat baino gehiago izateak kudeaketa berria sortzea eskatzen du, aurretik izandako sistema neurri garrantzitsu batean aldatuz.

Kontutan hartu behar da gaur egun eleaniztasunak hezkuntza sisteman hedatzen jarraitzen duela. Esan bezala, curriculumak elebakarra izatetik eleaniztasuna sustatzera igaro da, baina ikastetxearen arabera eleaniztasun hau nabariagoa izaten da. Ikasleak bi hizkuntza baino gehiagotan aritzeko gai izatea egungo ikastetxe askoren helburu bat da, baina guztiek ez dituzte metodo berdinak erabiltzen hau lortzeko. Kasu askotan, oraindik curriculumak moldatzen ari dira errealitate berri honi aurre egiteko eta moldaketa prozesu honekin jarraitzeko, ezinbestekoa da fenomeno honen errealitatea ezagutzea.

Aurrean aipatutakoari erreferentzia eginez, honako hau esaten du 2007ko curriculumak Euskal Herriko hezkuntza sistemaren hizkuntzen egoerari buruz:

Elebitasuna bermatzea da euskal eskolaren erronketako bat, baina, horrez gainera, pertsona eleanitzak hezi behar ditu, gutxienez atzerri hizkuntza bat behar bezala dakitenak. [...] Lehen Hezkuntzako ikasleak, hein batean, eleanitzak direnez, hizkuntza-irakasleak beharturik daude, planteatutako hezkuntza-helburuei eutsita, beren irakaskuntza-metodoak aztertzea eta egokitzea, eta, batik bat, hizkuntzak era integratuan lantzea (Eusko Jaurlaritza, 2007: 107).

Aurrekoak bezala, 2016ko dekretuak ere eleaniztasunari egiten dio erreferentzia:

Elebitasunetik abiatuz ikasleak eleaniztasunak izateko bidean aurrera egiteko, atzerriko hizkuntzen ikaskuntza eta erabilera sendotzeko neurriak hartuko dituzte ikastetxeek, eta, pixkanaka, beren hizkuntza-proiektu eta curriculum-proiektuen barruan arlo edo ikasgai ezberdinetako curriculum-edukiak atzerriko hizkuntzan irakasten hasi ahal izango dira (Eusko Jaurlaritza, 2016: 12-13).

EAEz bestelako komunitate bati ere begiratzen badiogu, adibidez Nafarroako Aldizkari Ofizialak (NAO) (2010) honela aitortzen du:

Hezkuntza Departamentuaren programa eleaniztunek indarra duen curriculumak garatzen dute, bi hizkuntzaren edo gehiagoren irakaskuntza koordinatuz eta honi erantsitako oinarrietan ageri diren printzipio metodologikoei eta irizpideei jarraikiz. Programa horiek, funtsean, hizkuntzetakoak ez diren arloetako curriculum-edukiak atzerriko hizkuntzan garatzean datzate, hizkuntzaren eta edukiaren irakaskuntza (CLIL) integratuz, eta halaber, curriculumeko hizkuntzen tratamendu integratu edo koordinatua (TIL) egitean. (Nafarroako Gobernua, 2010: 1-6)

Beraz, argi ikusten denez, bai EAEko probintzietan baita beste komunitateetan ere, eleaniztasunaren garrantzia indartzen duten moldaketak eta proiektuak aurrera eramaten hasi dira.

1.4.2 Gizarteko hezkuntza eragileak

i. Kristau Eskola

Kristau eskola 2005. urtean sortu zen erakunde bat da eta eskola ugari hartzen ditu barnean. Haiek ere iritzi bat daukate eleaniztun programei buruz edo atzerriko hizkuntza baten murgiltzeari buruz eta kasu honetan nahiko positiboa dirudi: “[...] gerta litezkeen aldaketei arreta berezia eskaintzen die, behar tekniko eta pedagogiko modernoetara egokituz. Hori dela eta, Euskal Herrian bizi dugun hizkuntza eta kultura aniztasuna oso kontuan hartzen ditu” (Kristau eskola, 2015a)

Elkarte horrek adierazten duenez, gaur egungo gizartean eta batez ere etorkizunari begira, *CLIL* bezalako proiektuak guztiz beharrezkoak dira, hizkuntza desberdinetan komunikatzeko gaitasuna oso onuragarria den kompetentzia bat delako, eta *CLIL* jardunbidea egokia kontsideratzen delako helburu hori lortzeko. Hori dela eta, Kristau Eskola elkartearen hezkuntza erantzukizuna garatzeko hainbat gaitasun lantzen dituzte, horien artean hizkuntzei erreferentzia egiten dion bat: “Hizkuntza ofizialen eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean komunikatzen ikastea, kultura desberdinak eta haien berezitasunak errespetatuz” (Kristau Eskola, 2015b).

Gainera haien eskoletan, *CLIL* bezalako metodologiak garatzen hasiak dira eta prozesu horretan, aurre-ebaluaketa, bitarteko ebaluaketa eta amaierako ebaluaketa bat egiten dute (Kristau Eskola, 2015c). Baina, horrez gain, elkarteko kide den ikastetxe bakoitzaren ezaugarriei, ikasleen beharrei eta ingurugiroari erreparatuz, hizkuntza proiektu egokituak diseinatzen laguntzen dute, gizartean gertatzen ari diren aldaketei aurre egiteko.

Horren adibiderik onena, ANIZTU plana da, Kristau Eskolak sortutako proiektua, ikasleen eleaniztasunean oinarri sendoak sustatzeko eta haien hizkuntza helburuak lortzeko asmoz (Kristau Eskola, 2015d). Aipatzekoa da halaber ANIZTU planaren barruan irakasleentzako formakuntza saioak ere badaudela, haien hizkuntza maila hobetzeko eta ikasleen beharri zeharri erantzuteko gai izateko prestakuntza jasotzeko (Kristau Eskola, 2015e).

Hala, haien helburu nagusienetarikoa bat eleaniztasuna sustatzea da eta emaitza onak jasotzen dituzten heinean, haien helburuak asmo handikoak izango direla adierazten dute (Kristau Eskola, 2015d).

ii. Ikastolen elkartea

Ikastolen Elkartea, Euskal Herrian dauden ikastolen, irakasleen, ikasleen eta haien gurasoen komunitate bat da. Guztira 109 ikastolak osatzen dute eta heziketa eskaintza zabala daukate: haurtzaindegia, HH, LH, DBH, batxilergoa eta Lanbide Heziketa (Euskal Herriko Ikastolak, 2015).

Hezkuntza eredu propioa daukate eta izugarriko garrantzia ematen diote hezkuntza euskaldunaren zabaltzeari eta eleaniztasunari (Euskal Herriko Ikastolak, 2015):

Gauzak horrela, euskal hezkuntzak hizkuntzekiko dituen erronkak ez dira makalak. Egungo gizarteak eskatzen duen goi mailako hizkuntz gaitasun eleaniztuna garatzen lagundu beharko du, betiere euskararen biziberritze-prozesuari lagunduz eta euskal kulturaren sustapena bermatuz (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 2009: 31),

Hori kontuan hartuta, Ikastolen Elkarteak “Ikastolen Hizkuntza Proiektua” izeneko dokumentua sortu zuen kide guztientzat erreferentziako dokumentu

gisa, eta bertan biltzen dira proiektuaren oinarriak, metodologia eta helburu guztiak.

Argi azaltzen duten bezala, garrantzia handia ematen diote ikasleen hizkuntza mailari (baita irakasleen hizkuntza mailari ere); izan ere, elebitasuna eta eleaniztasuna gero eta zabalduagoak daude. Aski ezaguna denez, haien helbururik nagusia euskara hizkuntza gutxituaren sustapena eta garapena indartzea da, euskal kulturaren adierazgarri nagusi gisa hartuta (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 2009: 21-24).

Aurreko guztia kontuan hartuz, garbi dago eleaniztasunaren alde daudela eta hori sustatzeko lan egiten dutela; eta horrela, pausuz-pausu Euskal Herriko ikastoletan hizkuntza aniztasuna garatzen saiatzen dira.

2. Ikerketa enpirikoa: ikastetxe baten azterketa

2.1 Metodologia

Gradu Amaierako Lan honetan ikerketa bat egitea erabaki da, eskola baten errealitatean hizkuntzen trataerari buruzko informazio ugari aztertu gabe baitago eta etorkizunari begira interesgarria delako *CLIL* bezalako metodologiak hobeto ezagutzea.

Aukeratutako gaiarekin, gaur egungo eskola publiko batean gertatzen den hizkuntzen egoera aztertzea pentsatu da; alde batetik, *CLIL* nola burutzen den jakiteko eta bestetik gurasoen eta ikasleen iritzia zein den aztertzeko.

Ikerketa hori aurrera eramán ahal izateko, giro erdalduneko Bilboko eskola publiko batekin harremanetan jarri eta lanaren helburuak azaldu ziren. Eskolako arduradunek proiektua burutzeko baimena eman ostean, ikasle, irakasle, guraso eta zuzendaritza taldearentzat galdetegi batzuk prestatu ziren (ikusi 1., 2., 3., eta 4. eranskinak), horien bitartez informazioa eskuratzeko eta geroago, ondorio batzuk lortu ahal izateko.

Kasu honetan, aukeratutako eskolaren hizkuntza eredu ofiziala D da, baina horrez gain, hizkuntzak eta edukiak batera ikasteko proiektu berezia

dauka, eta Lehen Hezkuntzako etapa osoan ezarrita egon ordez, *CLIL/HEBI* metodologiako saioak bakarrik laugarren, bosgarren eta seigarren mailan egiten dira.

Goian esan bezala, beraz, galdetegiak prestatu ziren informazioa jasotzeko, eta gero batzuk inkesta gisa pasatu ziren eta beste batzuk elkarrizketaren bidez gauzatu ziren. Galdetegi horiei buruzko zehaztasun batzuk aipatuko ditugu segidan.

2.1.1 Galdetegiak

Lanaren atal honetan, burututako galdetegien helburuak azaltzen dira, ikasleen, gurasoen, irakasleen eta zuzendaritza taldearen erantzunetatik lortzea espero dena azalduz.

Ikasleei dagokienez, planteatzen den helburua haien egoera ikuspuntu hurbil batetik ezagutzea da. Emaizta akademikoak ez dira bereziki aztertuko ikerketa honetan, eta ikasgai batzuk ingelesez ikasteari buruz daukaten iritzia jakitea, ordea, garrantzitsua izango da haien motibazioa nondik norakoa den jakiteko. Gainera, haiekin hitz egitea, hirueledun programaren gabeziak edo ahultasunak zeintzuk diren jakiteko era apropos bat izan daiteke, azken finean, haiek direlako (irakasleekin batera) programa hauek nola funtzionatzen duten hobekien dakitenak (horretan parte hartzen dutelako) (ikusi 1.go eranskina).

Gurasoei dagokienez, helburua, lehenik eta behin haien seme-alaben egoera ezagutzen duten jakitea da. Bertatik abiatuta, eskolak daukan hirueledun proiektuari buruz daukaten iritzia jakin nahi da, eta baita jakin ere zer iritzi duten gurasoek programa eleaniztunaren ontasunaz haien seme-alabei dagokienez. Azkenik, gurasoen zalantzak edota kezkek zeintzuk diren jakitea interesgarritzat jo da, etorkizunean kezka horiek balio dezaten proiektua hobetzeko eta aldeko iritzia izateko *CLIL/HEBI* jardunbideari buruz (ikusi 2. eranskina).

Irakasleei dagokienez, haien eginkizuna ezagutzeko asmoa dago. Zehatzago mintzatuz, proiektua ingeleseko irakasleek soilik aurrera eramaten

dutela jakinda, haien betebeharrak, helburuak eta ardurak zeintzuk diren aztertu nahi da (ikusi 3. eranskina).

Azkenik, zuzendaritza taldeari dagokionez, eskolako proiektuaren garapena nolakoa izan den aztertzeko asmoa dago, zuzendaritako kideen bidez jakiteko nondik norakoa den agintaritza-organoen parte hartzea eta proiektuaren sustapena, eta ezagutzeko proiektuari buruzko oinarrizko zehaztapenak alor desberdinei buruz (ikusi 4. eranskina).

2.1.2 Galdetegiak sortzeko irizpideak

Aurreko atalean azaldu den bezala, galdetegiak segun eta nori bideratuta dauden helburu desberdinak dituzte. Hori kontuan hartuz, irizpide ugari kontuan izan dira galderak sortzeko, horietatik ahalik eta emankortasun handiena lortzeko eta ikerketa esanguratsua izateko.

Ikasleen galdetegiari dagokionez (1.go eranskina), haien adina eta ulermen maila kontuan izan direla aipatzekoa da. Galdera konplexuak saihestuz haien egunerokotasuna eta hizkuntzekin daukaten erlazioa ezagutzeko galderak sortu dira, eta horrez gain, eskolatik kanpo, hizkuntzei bideratzen dizkieten ikastorduei buruzko informazioa eskatu zaie ere.

Askotan, hizkuntzek zailtasunak sorrarazten dizkietela kontuan hartuz, eskolan daukaten hirueledun programari buruzko galdera ugari agertzen dira galdetegian, alde batetik, haien zailtasunak zein hizkuntzarekin izaten diren jakiteko eta bestetik, proiektuan lantzen diren hizkuntzen artean konparaketa bat egin ahal izateko. Horretaz aparte, haien motibazioa ezagutzeko ere galderak sortu dira, eta eskolan burutzen dituzten jardueri buruz galdetzen zaie, ondoren, haiek parte hartzen ari diren proiektuaren berri zehatza jakiteko.

Gurasoei, ordea, galdetegian haien seme-alabei buruzko informazioa eskatzen zaie batez ere (2. eranskina); alde batetik, etxean (hezkuntzari dagokionez) zailtasunei nola egiten dieten aurre jakiteko, eta bestetik, eskolarekin eta haurren hezkuntza prozesuarekin daukaten harremana eta ezagutza maila nolakoa den jakiteko. Horren bidez informazioa lortu nahi da

proiektuak izan litzakeen puntu ahulak eta sendoak ezagutzeko, gurasoen ikuspuntutik.

Irakasleen galdetegian (3. eranskina) eskolako eta beste irakasleekiko harremana ezagutzeko hainbat galdera agertzen dira eta horrez gain, haien egunerokotasuna eta ikasleen zailtasunei buruzkoak ere aipatzen dira. Gainera, familiarekin daukaten erlazioa nolakoa den galdetzen zaie, beraz, haien egoera akademikoa aztertzeaz gain, familiekin daukatena aztertzea ere espero da; bien arteko elkarlana oso faktore garrantzitsua baita ikasleen ongizatearentzako.

Azkenik, zuzendaritza taldearen galdetegian (4. eranskina), eskola mailan zein nolako hizkuntza gaitasuna dagoen jakiteko galderak agertzen dira, beste batzuen artean (ikus 4. eranskina). Haiek daukate, arduradun nagusi gisa, eskolari buruzko informazio gehiena, bai oraingoa eta bai iraganari buruzkoa eta hori dela eta, eskolako egoeraren analisi kritiko bat egiteko haien lankidetzaz ezinbestekoa gertatzen zaigu, bai, errealitatea nolakoa den aztertzeke eta bai hobekuntzak nondik bideratu behar diren argitzeke.

2.2 Galdetegiaren emaitzak

2.2.1 Ikasleen iritziak

Orain azalduko diren emaitzak, ikastetxe publiko baten 120 ikasleri egindako galdetegiaren erantzunek osatzen dituzte. Ikasle horiek hiru maila desberdinetakoak izan dira, konkretuki laugarren, bosgarren eta seigarren mailakoak; hori dela eta, jasotako emaitzak hiru maila horien arabera sailkatuko dira.

- Laugarren mailako ikasleen erantzunak

Laugarren maila, guztira, 36 ikaslek osatzen dute. Galdetegian azaldu dutenez, denak hasi ziren Haur Hezkuntzan ingeleza ikasten eta hori dela eta, ikasketa jarraitua burutu dute eta haien ezagutza maila antzekoa da.

Klasean hainbat ordu ingelesez eta euskaraz ikasteari eskaintzen dizkioten arren, batzuek (%52,7a) eskolatik kanpo ere hizkuntza horiek ikasten tartea ematen dituztela onartu dute, noizbehinka zailtasunak izateagatik, edota

hizkuntza gaitasuna hobetzeko asmoarekin ere (2 ikaslek ordu bat eskaintzen diote euskarari eta ikasle batek bi ordu; ingelesari, ordea, 3 ikaslek ordu bat eskaintzen diote, 12 ikaslek bi ordu eskaintzen dizkiote eta ikasle batek 3 ordu). Gainontzekoak (%47,3a), soilik klasean lantzen dutena jorratzen dutela aitortzen dute eta laguntzarik ez dutela behar ziurtatzen dute.

Ingelesari dagokionez, galdera batean hizkuntza horren garrantziari buruz galdetzen zaie ikasleei: %91k ingelesa haien etorkizunerako oso garrantzitsua dela esaten dute, lana topatzeko edota bidaiak egiteko ezinbestekoa dela adieraziz. Hala eta guztiz ere, ingeleseko ikasgaia zaila iruditzen zaiela onartzen dute batzuek (%36,1ek) eta horrek, haien motibazioa txikiagotzea eragin dezake.

Science ikasgaiari dagokionez, ordea, errazagoa dela eta ingeleseko ikasgaia baino gehiago interesatzen zaiela esaten du %97,2k; normalean baliabide eta dinamika erakargarriagoen bitartez lantzen dutelako eta gaia ulerterrazagoa egiten zaielako (nahiz eta hizkuntza ingelesa izan gai honetan ere).

Orokorrean, ikasle hauen %91,7k hirueledun proiektuan parte hartzearekin pozik dagoela aitortzen du, baina %44,4k ez du interes handirik adierazten ikasgai gehiago ingelesez ematean. Beraz, proiektuaren eraginkortasuna eztabaida daiteke eta haien motibazioa handiagotzea helburu bat bilakatu daiteke hurrengo urteetan.

Azkenik, ikasleei haien eskolako hirueledun proiektua ebaluatzeko eskatu zaie eta batzuek bestekoa eginez, 8,84ko puntuazioa eman diote; beraz, proiektu hau ikasleek ondo baloratzen dutela nabarmentzekoa da.

- Bosgarren mailako ikasleen erantzunak

Bosgarren maila, guztira 41 ikaslek osatzen dute eta kasu honetan, oso adin desberdinekin hasi zirela ingelesa ikasten adierazi dute. Gehienak (%80,5), Haur Hezkuntzan hasi ziren arren, beste batzuk etorkinak zirela idatzi

dute eta hori dela eta, ingeleseko ikasketak Lehen Hezkuntzan burutzen hasi zirela aitortu dute.

Eskolatik kanpo hizkuntzak ikasteari dagokionez, %51k laguntza jasotzen duela onartu du; etxerako lanekin zailtasunak dituztela edota haien hizkuntza maila hobetu nahi dutela azaldu dute. Beste guztiek (%49k), ingelesa eta euskara eskolan baino ez dutela lantzen zehazten dute, baina kasuren batean hizkuntza horiek ama-hizkuntzatzat dituztela ere komentatu dute.

Ingelesaren garrantziari dagokionez, bosgarren mailakoek ere munduko hizkuntzarik garrantzitsuenetarikoa dela erantzun dute (%87,8k) eta haien etorkizunerako guztiz beharrezkoa ikusten dutela hizkuntza hori ikasten jarraitzea. Hala eta guztiz ere, ingelesa garrantzi gutxiko hizkuntza iruditzen zaiela adierazi duten hiru ikasle badaude, hizkuntza horrek hainbesteko garrantzia izatea ez dutela ulertzen azalduz.

Hori guztia esan arren, bosgarren mailako %46k ingelesa zaila iruditzen zaiela esaten dute eta %95,1ek ordea, *Science* hobeto ulertzen duela zehazten du. Horrekin batera, *Science* ikasgaiari egiten dituzten dinamika batzuk aipatu dituzte, hala nola “Chit-chat”, “Projects” edota abestiak, zeinekin edukiak hobeto ulertzen dituztela adierazi duten. Beraz, metodologia berritzaile horrek kontzeptuak ulertzea errazten duela ondoriozta daiteke, ikasleen motibazioa eta ulermen maila handiagotzen dela ikusita.

Azkenik, %63k hizkuntza eredu honekin pozik dagoela aitortzen duen arren, %48,8k ez luke beste ikasgaiaren bat ingelesez jorratuko eta maila osoak eskolako hirueledun proiektuari guztira 6,58ko nota jarri dio; beraz, aurreko mailarekin alderatuz puntuazioa behera doala ikus daiteke eta hori hobetzeko edota etekin gehiago lortzeko neurriak edo erabakiak hartu behar direla ikus daiteke.

- Seigarren mailako ikasleen erantzunak

Seigarren maila guztira 43 ikaslek osatzen dute, eta horien artean %74,4k Haur Hezkuntzan ingelesa ikasten hasi zela esaten du, gainontzeko

%26ak, atzerriko hizkuntzaren ikasketak beranduago hasi zituela aitortzen duen bitartean. Hori kontuan hartuz, interesgarria da ikustea, nola, maila honetako %60,9k akademiaren batera jotzen duela hizkuntzekin (bai euskararekin, baita ingelesarekin ere) laguntza jasotzera, askok ingelesa ikasten lehenago hasi ziren arren, antzeko premiak dituztelako haiek ere; eta beraz, ematen du lehenago hasi izanak ez duela bermatzen hizkuntza-konpetentzia maila hobea lortzea.

Ingelesaren garrantzia eta zailtasunari dagokionez, ikasleen %97,6k ingelesa haien bizitzetan ezinbestekoa izango dela uste du; gehienek, lana aurkitzeko beharrezkoa dela esaten dute baina, beste batzuek, atzerriko herrialdeetako pertsonekin harremanetan egon ahal izateko hizkuntza hori beharko dutela azaltzen dute ere. Beraz, ingelesa *lingua franca* moduan ikusten hasiak dira.

Kasu honetan, aipagarria da ere, %25,6k ingelesa hizkuntza zailtzat hartzen duela eta *Science* ikasgaiarekin alderatuz (zailtasunari dagokionez) desberdintasun handirik ez dutela nabarmentzen (%58,1ek ez du *Science* zailtzat hartzen eta aurreko kurtsoekin konparatuz desberdintasun handia ikus daiteke atal honetan, ikaragarri handitu delako *Science* zaila dela esaten duten ikasle kopurua.). Hori jakinda, %65ek beste ikasgairen bat ingelesez lantzeari ezetza ematen dio (aurreko kurtsoekin alderatuz, handitu da ezetza ematen duten ikasleen kopurua) eta dinamika erakargarriagoak egitea eskatzen du.

Azkenik, ingelesez lantzen dituzten saioak normalean dibertigarriak izaten direla aitortzen dute; hori dela eta, ikasleen %72 eroso sentitzen da eskolako proiektuarekin eta 7,64ko nota jartzen diote.

Hala, aurrean jasotako datu guztiak honako taula honetan adieraziko dira emaitzak hobeto alderatu ahal izateko:

Galdera	4. maila (36 ik.)	5. maila (41 ik.)	6. maila (43 ik.)
Ingelesa ikasten hasteko adina	%100 Haur Hezkuntzan	%80,5 Haur Hezkuntzan	%74,4 Haur Hezkuntzan
Akademiara joan	%52,7 bai	%51 bai	%60,9 bai
Ingelesa	%91k baietz	%87,8k baietz	%97,6k baietz

garrantzitsua da	esaten du	esaten du	esaten du
Ingelesa zailtzat hartu	%36,1ek zailtzat hartzen du	%46k zailtzat hartzen du	%25,6k zailtzat hartzen du
Science zailtzat hartu	%2,8k zailtzat hartzen du	%4,9k zailtzat hartzen du	%41,8k zailtzat hartzen du
Pozik hirueledun proiektuarekin	%91,7 pozik dago	%63 pozik dago	%72 pozik dago
Beste irakasgai bat ingelesez	%44,4k ezetz esaten du	%48,8k ezetz esaten du	%65k ezetz esaten du
Proiektuari jarritako nota	8,84	6,58	7,64

2. koadroa: *Ikasleen iritziak hainbat itemi buruz, ikasurteka (koadroa neuk egina, 2016).*

2.2.2 Gurasoen iritziak

Hirueledun proiektuan parte hartzen duten ikasle guztien gurasoei galdetegi bat eskaini zitzaion, baina hala eta guztiz ere, 120 galdetegietatik 68 (%56,7) jaso dira. Beraz, orain azalduko diren emaitzak, erantzuna eman duten guraso taldearenak baino ez dira.

Erantzunetan agertzen den moduan, familien %92,6k gaztelania du ama-hizkuntzatzat, %2,9k euskara, %2,9k arabiarra ere eta %1,5ek ingelesa (Afrikatik etorritakoa). Datu oso deigarriak dira, ikerketa hau Euskal Herrian burutu dela kontuan hartuz (euskararen presentzia oso murriztua delako).

Horretaz aparte, guraso gehienek (%78k), eskolako hirueledun proiektua zertan datzan badakitela adierazi dute, beste guztiek (%13k) ordea, eskolan ingelesa, euskara eta gaztelania era bateratuan lantzen dela dakiten arren, hirueledun proiektu bat zer den argi ez daukatela komentatu dute, eta beraz, interesgarria iruditzen zaie kurtso hasieran informazio hitzaldi batzuk jasotzea. Honekin batera, aipatzekoa da, %7,3k proiektu honen eraginkortasuna zalantzan jartzen duela, baina %92,6k, ordea, iritzi positiboa duela haien seme-

alaben ikaskuntza proiektuari buruz eta etorkizun baterako oso onuragarria izango zaiela esaten dute.

Proiektu honi esker, gehienek, haien seme-alaben hizkuntza maila hobetu dela uste dute: ingelesari dagokionez %75ek garapen handia nabaritzen du eta euskarari dagokionez ere %72k aurrerapenak ikusten ditu. Hori kontuan hartzeko faktore garrantzitsua den arren, gurasoen %20,6k esaten du ikasleek batzuetan zailtasunak izaten dituztela ere.

Eskolan, haien seme-alabek hizkuntzei eskaintzen dizkieten ordu kopuruei dagokienez, ikuspuntu batzuk agertu dira. Adibidez, ingelesari dagokionez, %67,6k denbora nahikoa bideratzen diotela uste du; %27,9k, ordea, ordu gehiago beharrezkoak izango liratekeela esaten du. Euskarari dagokionez, %63,2k ordu kopuru aproposa betetzen dituztela aitortzen du, eta %22k ordea, gehiegizko denbora pasatzen dutela euskaraz ikasten esaten du. Azkenik, gaztelaniari dagokionez, %69,1ek bideratzen dioten denbora nahikoa dela esaten du eta, %22k ordea, gehiago landu beharko zutela adierazten dute. Adierazgarria da euskarari eta gaztelaniari buruz ageri diren iritzi desberdinak; kontuan hartzekoa, baita, zenbatek uste duen euskarari "gehiegizko" denbora eskaintzen zaiola.

Gurasoen eta irakasleen harremanei dagokienez, %85,3k ingeleseko irakasleekin inoiz ez dituztela bilerak egiten esan du; beraz, bakarrik %14,7k egiten du haren seme-alaben (ingelesaren) ikaskuntza prozesuaren jarraipena irakasleekin batera, gabeziak edo zailtasunak komentatuz.

Amaitzeko, gurasoei etorkizunean haien seme-alabak eredu hirueledunean sartzeko asmoa zeukaten galdetu zaie eta %92,6k baietz esan du zalantza barik; baina, proiektu honekin lehenago hasiko zirela ere aipatu du %67,6k.

2.2.3 Irakasleen iritziak

Kasu honetan, eskolako irakasle guztiei galdetegia pasatu ordez, soilik hirueledun proiektuan parte hartzen dutenei eskaini zaie. Hala, ingeleseko

irakasleak izan dira galderak erantzun dituztenak eta haien esperientziak eta egunerokotasuna nolakoa den azaldu dute.

Eskolak hirueledun proiektua sortzeko aukera eman zuenean, 2010. urtean, ingeleseko irakasleak izan ziren horretaz arduratu zirenak. Adierazi duten moduan, haiek dira kurtsoko helburuak eta edukiak zeintzuk izango diren erabakitzen dituztenak (curriculumean oinarrituz) eta horrekin batera, erabiltzen diren baliabide eta materialak ere sortzen dituzte.

Hasieran, lan gogorra izan zela onartzen dute denek, eta haien motibazioa lehen momentutik oso altua izan zen arren, zailtasunak izan dituztela ere azaltzen dute. Halako proiektu bat zerotik sortzeak arrisku batzuk ekar ditzake eta dena ondo planifikatuta izatea oso garrantzitsua dela esaten dute. Hori kontuan hartuz, zuzendaritzaren partetik jasotako laguntza ezinbestekoa izan zela kontatzen dute eta horri esker, ikasleen eta familien aldetik proiektuak oso harrera ona izan zuela komentatzen dute.

Beste irakasleekin dituzten harremanei dagokienez, normalean tutoreekin lan egiten dutela aitortu dute; izan ere, *Science* izeneko irakasgaietan natur zientziako gaiak jorratzen dira eta hori kontuan hartuz, maila bakoitzeko tutoreekin adosten dituzte landuko diren edukiak. Hala eta guztiz ere, eskolako beste irakasle guztien parte hartzearen falta sumatzen dute eta haien laguntzarekin proiektuak hobekuntzak izango zituela eta ikasleen ikaskuntza prozesua hobetuko zela deritzote.

Gauza bera esaten dute familiei buruz ere. Normalean kurtso osoan zehar ez dutelako inolako erlaziorik (bilerak) izaten eta beharrezkoa ikusten dutelako ikasleen ikasketa prozesuaren jarraipen bat egitea; alde batetik, zailtasunen bat izatekotan bien artean (irakasle eta familia) konpondu ahal izateko, eta bestetik, ikasleen garapena nolakoa den komentatu ahal izateko.

Azkenik, eta hizkuntza mailari erreferentzia eginez, ikasleen ingeleseko hizkuntza maila hobetu dela uste dute. Nahiz eta hirueledun proiektuarekin 4. mailan hasten diren, ikasleek hainbat gaitasun garatzen dituzte prozesu osoan zehar eta erabiltzen dituzten baliabide eta dinamikei esker emaitza onak lortzen dituztela uste dute (nahiz eta kanpo ebaluaziorik egiten ez den). Gainera,

proiektuaz arduratzen diren bi irakasleek ingeleseko titulu altuak dituzte (*advanced*), beraz, ikasle guztien beharrezan linguistikoei erantzuteko ez dute eragozpen berezirik eta gai dira behar horiek asetzeko momentu oro.

2.2.4 Zuzendaritza taldearen iritziak

Zuzendaritza taldearen partetik oso erantzun interesgarriak jaso dira galdetegietan. Esaten duten moduan, eskola publiko honek hirueledun proiektua martxan jartzeko erabakia 2010. urtean hartu zuen. Printzipioz, proiektua bakarrik laugarren mailan eta hirugarren zikloan lantzeko prestatu zutela esaten dute, baina urteak pasa ahala, emaitza positiboak jaso eta gero, beste zikloetan ere lantzeko aukera dagoela esaten dute.

Proiektu honekin, ikasleen eta familien motibazioa eta interesa (ingelesarekiko) handitu zela aitortzen dute eta irakasleei proiektu erakargarria iruditu zitzaenez formakuntza saioetan parte hartzen hasi ziren. Hala eta guztiz ere, azkenean, proiektua ingeleseko 4 irakasleek aurrera eramaten dute, haien kabuz materiala sortuz eta mota askotariko baliabideak erabiliz.

Eskola Berritzegunearekin eta Euskal Herriko beste hainbeste eskola publikorekin ere elkarlanean aritzen dela adierazi dute, proiektu honentzako berrikuntzak lortzeko eta elkarren artean proiektuak hobetzeko asmoz. Gainera, Berritzeguneak formakuntza saioak antolatzen dituenek, eskolako irakasle batzuek horietan parte hartzen dutela adierazi dute eta hori, irakasleen hizkuntza maila hobetzeko oso baliagarria dela aitortzen dute.

Azkenik, eskolako hizkuntza mailari dagokionez, euskaraz eta gaztelaniaz, hobekuntza handia behar dela esaten dute. Dirudenez, azken urteotan, euskararen erabilpena ikasleen artean gutxitu egin da eta horrek eragin handia izan du eskolako testuinguruan. Ingelesarekin gauza bera gertatzen da, eta nahiz eta hirueledun proiektuari esker pixkanaka-pixkanaka garapen bat nabaritzen duten, ikasleen hizkuntza maila ere nahiko baxua dela ziurtatzen dute. Gainera, ingeleseko irakasle espezializatuena izan ezik, beste guztien ingeles maila oso baxua da, eta beraz, formakuntza saioetara joateko aukera ematen diete hizkuntza gaitasuna hobetzeko asmoz.

2.3 Galdetegiaren erantzunetatik ateratako ondorioak

Ikerketa honen bidez ikusienez, eskolak hirueledun proiektu bat martxan jartzea erabaki zuen, hizkuntzek gero eta garrantzia handia hartzen ari direla ikusita. Eta proiektu horren bitartez, helburu batzuk lortu nahi izan dira, hala nola, ikasleen hizkuntza gaitasuna hobetzea hiru hizkuntza horietan guztietan (pixkanaka lortzen ari direna, beren iritzian).

Ikasleen erantzunak aztertuz, hirueledun proiektu batean murgiltzen direnean esfortzu handia egin behar izaten dutela ikusi da. Eskolan gehien ezagutu eta landu dituzten hizkuntzak euskara eta gaztelania izan dira beti, eta orain, ingelesari gero eta garrantzi handiagoa ematen ari zaiola ikusiz, marko hirueledun batean murgildu behar izan dira, ingelesez ikasi beharreko ikasgai batzuk gehituz. Horren ondorioz, batzuetan zailtasunak izaten dituzte hizkuntzekin eta ikasleen kopuru handi batek eskolatik kanpo laguntza bilatzen du akademietan (batez ere, ingelesarekin laguntza jasotzeko).

Hala eta guztiz ere, ikasle gehienek ingelesaren garrantziaz ohartuta daude eta eskolak proiektu honen bidez prestatzen dituen baliabide eta dinamika berritzaileekin, haien motibazioa handiagotu daitekeela eta haien ulermen maila hobetu daitekeela ikusi da. Horrek aditzera ematen du *CLIL* metodologiaren esentzia betetzen dela eta proiektua eraginkorra dela, ikasgai baten edukiak eta helburuak (kasu honetan, era dinamiko batean) betetzea lortzen dutelako, ingelesa inkontzienteki lantzen eta barneratzen duten bitartean. Baina, proiektuak ikasleen artean harrera ona duen arren, ezin da ahaztu interes gehigarriak ez daukatela beste ikasgai gehiago ingelesez hartzeko, eta beraz, oraindik ere proiektuak gabezi hori konpontzea helburutzat har lezake, ingelesarekiko benetako interesa sustatzeko ikasleen artean.

Gurasoen erantzunekin, askotan familiek haien seme-alaben ikaskuntza prozesuari buruzko informazio gutxi daukatela ikusteko aukera egon da. Gehienetan, gurasoek garrantzia handia ematen diete hizkuntzei, eta haien seme-alabak marko hirueledun batean murgiltzen dituzte, haien beharrezan eta gaitasunak kontuan hartu barik; hori dela eta, batzuetan ikasleek zailtasunak edo emaitza txarrak jasotzen dituzte eta ondorioz, gurasoek hirueledun proiektuaren eraginkortasuna zalantzan jartzen dute.

Hori ekidin ahal izateko, eskolak, kurtsoa hasi aurretik, orientabide hitzaldi batzuk eman beharko litzieke gurasoei, proiektuaren oinarriak azalduz eta honen zailtasun maila nondik norakoa izango den adieraziz. Gainera, gurasoek haien seme-alaben ikaskuntza prozesuaren jarraipena era sakonago batean egitea komenigarria izango litzateke, irakasleekin bilerak antolatuz haurren gabeziak edo beharrak zeintzuk diren jakin ahal izateko eta horiei erantzuna era egoki batean eman ahal izateko.

Irakasleei dagokienez, (ingelesekoek) lan handia egiten dutela ikusten den arren, oso onuragarria izango litzateke tutoreekin eta eskolako beste irakasleekin ere lanean aritzea. Saioak ingelesez antolatzeko momentuan haien laguntza guztiz beharrezkoa izango ez den arren, behintzat elkarren artean proiektuak ezagutzeko eta kurtsoko helburu orokorrak zehazteko garrantzitsua izango litzateke haien arteko elkarlana.

Horretaz aparte, ikasleen motibazioa ere kontuan hartzeko faktore bat izan beharko litzateke irakasleentzat; eta haien interesa saio dinamikoekin askoz handiagoa dela ikusita, irakasgaiak beste ikuspuntu berritzaile batetik bideratzea komenigarria izango litzateke hirueledun proiektua aurrera jarraitu ahal izateko. Gainera, gurasoekiko harremana hobetu behar dutela ikusi da eta kurtsoan zehar hainbat bilera egin beharko litzateke hirueledun proiektuari eta batez ere, ikasleen ikaskuntza prozesuari buruz hitz egiteko.

Hori guztia esanda eta behin ikastetxearen egoera ezagututa, hizkuntzen garapena lortzeko etengabeko prozesu batean murgildu behar direla ondoriozta daiteke; eta hurrengo urteotan haien hirueledun prozesuaren bitartez etekinak lortzen jarraitu ahal izateko, ikastetxea osatzen duten faktore guztiak kontuan hartzea beharrezkoa izango lukete, ikasleen egoeratik hasiz eta gurasoen iritziekin bukatuz.

3. Lan guztiaren ondorioak

Adierazi den moduan, gizarteak etengabeko aldaketak jasan ditu azken hamarkadetan, eta hizkuntzak ezinbesteko faktore bilakatu dira, herrialdeen

arteko komunikazioa baldintzatzen dutenak. Hori kontuan hartuz, hezkuntza sistemak zeregin handia eskuratu du hizkuntzen irakaskuntzaren atalean eta ikasleei atzerriko hizkuntzak irakasteko sistema eta metodologia berriak erabiltzen hasi dira. Horietako bat *CLIL* da, eta lan honetan adierazi den moduan gero eta indar handiagoa lortzen doa.

Hasieran egin den aurkezpen teorikoan ikusi den bezala, *CLIL* metodologiak berrikuntza oso nabaria eragin du hezkuntza sisteman; eta denbora aurrera joan ahala, gero eta ikastetxe gehiagok haien hizkuntza proiektuak egiten dituzte metodologia hori oinarritzat hartuz. Horrekin batera, gizarte eragile batzuek atzerriko hizkuntzak ikastea sustatzen dute eta estatuak ere garrantzia ematen dio gizabanako elebidunak edo eleaniztunak sortzeari, horren ondorioz aipamenak eginez curriculumeko dekretuetan eleaniztasunari buruz. Beraz, argi ikusten da nola mundu mailan eta estatu mailan ere, hizkuntzen garrantziaz jabetu garen eta badirudi horiei emango zaien balioa gero eta handiagoa izango dela.

Lanaren atal enpirikoan, teorian adierazitako guztia errealitate hurbil batetik ikustea bilatu da eta ikastetxe bateko ikasle, irakasle, guraso eta zuzendaritza taldeari galdetegi batzuk eginez, eskolako hizkuntza proiektua ezagutzen hasteko aukera egon da. Ohartzekoa da, hala ere, galdetegi horien bitartez ez dela programa hirueledunaren ebaluazio bat egitea bilatu, baizik eta horren inguruko hainbat zertzelada ezagutzea, gehienbat partaideen iritzi-mailan.

Hala, behin ikastetxearen egoera eta gizataldeen erantzunak aztertuta, proiektua aurrera doala ondoriozta daiteke. Eta hori horrela dela ondorioztatzen da, hobekuntzak behar dituen arren, ikasleek hizkuntzen garrantzia ikusten hasiak direlako eta irakasleen lanari esker, pixkanaka-pixkanaka motibazioa landuz kurtsoko helburuak eta edukiak betetzen doazelako. Beraz, *CLIL* bezalako metodologiak onuragarriak direla eta emaitza positiboak sortzen dituztela esan daiteke eta ikasleen hizkuntza gaitasuna hobetzeko oso baliagarriak direla aitortzekoa da.

Azkenik, aipatutako guztia kontuan izanda, interesgarria izango litzateke bi edo hiru urte barru berriz ere ikerketa bat egitea, hain zuzen ere

ikastetxearen egoera nola aldatu den jakiteko eta haien proiektuak izan dituen hobekuntzak edo atzerapenak ezagutzeko. Halaber, beste ikastetxe publiko zein pribatu batzuetan ere ikerketa egitea esanguratsua izan liteke, haien hizkuntza proiektuak ezagutu eta konparatu ahal izateko eta erabiltzen dituzten metodologia eta dinamikak alderatu ahal izateko, azken batean ikastetxe bakoitzeko kideek besteen jardunbide onak ikas ditzaten, horrela lanaren emaitzak hobetzeko bidean aurrera eginez.

4. Bibliografia

Attard, S., Walter, L., Theodorou, M. eta Chrysanthou, K. (2014). Guía CLIL. (2015-10-30ean ikusia). URL:

<http://www.languages.dk/archive/clil4u/book/CLIL%20Book%20ES.pdf>

Baker, C. (2011): *Foundations of Bilingual Education and Bilingualism*. Bristol: Multilingual Matters.

Brunner, J.J. (2000). Globalización y el futuro de la educación: Tendencias, desafíos, estrategias. *Seminario sobre prospectiva de la Educación en la Región de América Latina y el Caribe*. (2016-01-23an ikusia). URL: <http://www.schwartzman.org.br/simon/delphi/pdf/brunner.pdf>

Council of Europa (d.g.) Education and Languages: Language Policy (2016-05-23an ikusia). URL: http://www.coe.int/t/dg4/linguistic/Division_EN.asp

Crystal, D. (2007). *Hizkuntzaren iraultza*. Donostia: Erein

EF Education First. (2011). *Índice de nivel de inglés*. (2015-11-2an ikusia). URL: <http://www.ef.com.es/sitecore/~/media/efcom/epi/pdf/EF-EPI-2011-Spain.pdf>

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa (2009). *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. Bilbao: Gertu (2015-11-5ean ikusia). URL: <http://www.ikastola.eus/sites/default/files/page/5167/file/Ikastolen%20Hizkuntz%20Proiektua.pdf>

Euskal Herriko Ikastolak. (2015). Hezkuntza eredu propioa. Donostia: Ikastolen Elkartea. (2015-11-4an ikusia). URL: http://www.ikastola.eus/ikastola/zer_da

Eusko Jaurlaritza (2007). Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculuma. 175/2007 Dekretua. 218. alearen gehigarria, Vitoria-Gazteiz: EHAA-BOPV

Eusko Jaurlaritza (2016). Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculuma. 236/2015 Dekretua. Vitoria-Gazteiz: EHAA-BOPV

Kristau Eskola (2015a). Misio, ikuspegi eta baloreak. Donostia. (2016-05-23an ikusia). URL: http://kristaueskola.eus/tr_contenido/292/misio-ikuspegi-eta-baloreak.aspx

Kristau Eskola (2015b). Gure proposamena. Donostia (2016-02-16an ikusia). URL: <http://kristaueskola.eus/contenido/291/nuestra-propuesta.aspx>

Kristau Eskola (2015c). Hizkuntza proiektuak. Donostia. (2015-11-4an ikusia). URL: http://kristaueskola.eus/tr_contenido/237/hizkuntza-proiektuak.aspx

Kristau Eskola (2015d). ANIZTU. Donostia. (2016-04-19an ikusia). URL: http://www.kristaueskola.eus/tr_contenido/74/aniztu.aspx

- Kristau Eskola (2015e). Formazioa. Donostia. (2016-02-16an ikusia). URL: <http://www.kristaueskola.eus/contenido/340/formacion.aspx>
- Marsh, D. (2002). ¿Qué es CLIL?. (2016-02-10ean ikusia). URL: <https://clil.files.wordpress.com/2009/02/marsh-s.pdf>
- Nafarroako Gobernu. (2010). 69/2010 Ebazpena, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako programa eleaniztunak emateko oinarriak ezartzen dituen. *Navarra.es Aldizkaria*, 37, 1-6. (2015-11-5ean ikusia). URL: http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2010/37/Anuncio-15/
- Navés, T., Muñoz, C. (2000). Usar las lenguas extranjeras para aprender y aprender a usar las lenguas extranjeras. (2015-11-2an ikusia). URL: <http://archive.ecml.at/mtp2/CLILmatrix/DOCS/3Esp.pdf>
- Posteguillo, S. (2002). La influencia del inglés de Internet en la lengua española. *Revista de investigación lingüística*, 2, 117-139. (2016-01-24an ikusia). URL: <http://revistas.um.es/ril/article/view/5391/5281>
- Rodrigo, M. (2000). La comunicación intercultural. *Portal de la comunicación*, 1-11. (2016-01-24an ikusia). URL: www.portalcomunicacion.com/download/1.pdf

Eranskinak